



Gipuzkoan 1933an izan ziren zortzi alkate andreetatik bost. Ezkerretik eskuinera: Carmen Querejeta, Azkoitiko alkatea; Purificación Gil, Zestoakoa; Carmen Almandoz, Segurakoa; Aurea Arregui, Albizturgoa; eta Iciar Arana, Legazpiko alkatea.

Maistraren esana lege

II. Errepublikak Hego Euskal Herriko emakumeei boto eskubidea aitortu zientetik ez zen urte eta erdi ere igaro; artean ez zuten bozkatzeko aukerarik izan. 1933ko urtarriletik maiatzera zortzi emakumek beste hainbeste herritako agintea hartu behar izan zuten Gipuzkoan. Kapritxo historikoa izan zen. Baina kapritxo horrek ekarri zituen aurreneko alkate andreak.

JON ARTANO

HIRU ALKATEGAIETATIK BI emakumeak izango dira igandeko udal hauteskundeetan Zestoan (Gipuzkoa), sekula lehenago ikusi gabekoa. Alabaina bateon batek esan zigun baietz, izan zela Zestoan emakumea alkate aspaldian. Aizarnako (Gipuzkoa) maistra izan zela alkate eta eskola itoginik gabe utzi zuela. Eta hasi gara haritik tiraka.

Purificación Gil zuen izena eta Aizarnan badira bere ikasle izandakoak. Horietako bat da Puri Bergara: “Errepublika denbora genueneko maistra? Bai. Pentsatzen jarrita harrigarria da emakumea jarri izana alkate, eta Aizarnakoa gainera, zestoarren beti gutxiagotzat eduki gaituztenean... Oso guapa zen, oso guapa. Baina maistratzarako asko ez zuen balio; laboreak eta eskulanak egiteko bai, abiliodosa zen-eta. Behar bezala erakusteko, ordea, onegia zen eta ez dakit ba pixkat ez ote genuen toreatzen. Alaba ere oso polita zuen, Esthertxo”.

Esthertxo sor Esther da joan deneko mende erdian; 1952an Alkozko (Nafarroa) komentura

sartu zenetik. Hartu gaitu, baina nekatua dagoela esan digu: “Ahal izan dudan guztia eman dut bizitzan, orain atsedean hartzea dagokit”. Amaren gomutak bizkortu dio solasa: “Gure ama guapa zen, oso guapa, horregatik ezkondu zen berekin aita”. Gizona ‘berezia’ hartu zuen. Izan ere Tolosako (Gipuzkoa) Rondilla kalean Gilen amak zuen pentsioan ostatatu zen Alemaniatik makina batzuk muntatzera etortitako gazte prestua; Rudolph Brauer Humman zuen izena. Amorostu egin ziren kanpotarra eta etxeko alaba.

Ama alkate izan zenean sei-zazpi urte zituen arren, oroitzen du garai hura: “Aizarnan gaztelera ahaztu zitzaigun hiru anai-arreboi; euskaraz baino ez genekien. Eskolak ere euskaraz ziren inork ez baitzekien kastellanoz. Ama balientea genuen, beharko izan!, oposizioak egin eta plaza atera zuen hiru umeren ama zela; hurrena alkate izan zen eta gero alar-gu geratu zen zazpi seme-alabekin eta inongo laguntzarik gabe; zerua goian eta lurra behean”.

Obabako maistra, Segurako alkate

CARMEN ALMANDOZ (1901-1980), izan zen biak; Segurako (Gipuzkoa) alkate aurrena eta Obabako maistra gero.

Conchi –alaba– eta Isabelen –hiloba– ahotik jakin ditugu Carmen buruzkoak. “Astigarragoak gara gu eta Carmen ere bai. Carmenen ama, etxekoandre matriarka, Mutrikutik heldu zen Astigarragara eta han ezagutu zuen senarra, Jose Antonio Almandoz; pilotaria, puntista. Ameriketan egiten zituen hark denboraldi luzeak. Mari Carmen zen emakume ederra. Izaera onekoa, lasaia, lagunkoia eta ona. Segurara egon aurretik Asturiasko herrixka batean egon zen maistra, Santa Barbaran. Gerora Asteasun ere egon zen, 57tik 71ra.

Intelektualki askea zen gure ama. Amak eta aitak bi alderdi desberdini ematen zioten bozka, adibidez. Alkate izan zeneko garaiaz ez zuen askorik hitz egin; hori bai, xextra ttikia izaten zuten aldiro esaten zion aitak broman: ‘Antzeman duzu, bai, alkate izan zinela’.

Seguran zegoela maistra etorri zen indiano bat eta arrunt erotu zen berekin. Gure aita zen hori; neska bila, propio, etorria. Jose Imaz zuen izena”. Hahor Atxagarengana garamatzen bigarren arrastoa; Imaz da Obabako lehen amerikanoa, *Soinujolearen semea*. “Ezkonduta eta eztei-bidaian joan ziren urtebetez. Dakar-en gelditu ziren aurrena, Afrikan. Gero, Brasil eta Argentina goitik behera korritu zituzten. Han saltoki handiak zituen aitak eta lanik egin nahi ez zuenez Europara itzuli eta etekinekin bizitza erabaki zuten. Carmen esan zion: ‘Zuk ez duzu zure bizitzan lana gehiago egin beharrik izango’. Baina urteetara militarrek [1955ean Argentinako armadak, Aranburu nagusi zela, emandako estatu kolpeaz ari da] dena kendu eta galtza hutsik utzi gintuen. Orduan Carmenek adore handia izan zuen, hogeitaka urtez eskolarik zapaldu gabe egon arren, ahal izan zuen moduan prestatu eta berriz hasi zen maistra. Hortik atera zuen familiak bizimodua. Zeinek pentsatu!, lehenago bizi guztian bi neskamerekin bizitakoak ziren haiek.

Lanak, ordea, mesede handia egin zion. Gaztetu egin zuen ume-jendearekin harremanak. Behin erretiroa hartu zuenean ez zen etxean gelditu eta bidaiatzeko grina sartu zitzaion; sarri joan zen Ingalaterrara, Errusian bi aldiz izan



Carmen Almandoz

zen, Norvegian, Turkian, Afrikan... Autonomia ikaragarria zuen”.

Aditutakoak adituta ezin izan dugu etsi, Bernardo Atxagari Carmen Almandoz buruz galdetu gabe. Honatx idazlearen oroitzapenak: “Esango diat niri zer gertatu zitzaidan: nire amaren maistra zenez, eskolara joan ninduan nonbait irakurtzen eta ikasita. Eta horregatik noski, aspertu egingo ninduan han. Uste diat oso ikasle bihurria nintzela. Ezin burutu maistrak ni eta nesken eskolara bidali nindian, Carmenekin. Esperientzia horretatik gogoratzen dudana duk ze gaiztoak ziren neskak nirekin. Nik izango nitian 7 urte-edo; eta beraiek 14 urte artekoak, askoz zaharragoak.

Maistra andre zintzoa gogoratzen diat, oso baketusa, ordurako adindua. Irrati-zale amorratua zuan, uste diat eskolan bertan edukitzen zuela. Iruditzen zaidak neskek beren festa egiten zutela han. Ez zuan giro klaseko mutil koskor bakarrarentzat, hango atximurka...

Baina ez duk *Obabakoakeko* maistra. Pertsonaia hori nire amaren *alter egoa* duk, hura ere maistra egon zelako Asteasun, goi bailaran”.

Pilar Lopez de Ayala da Obabako maistra Montxo Armendarizen *Obaba* filman.



Maisu erradikala eta Estampako erretratuak

Orain ez du etenik sor Estherren tar-tarrak: “Berez Aizarnako beste irakasleari, Maximori [Maximo Puerta da aipatzen duena; udalari bidalitako gutunak ‘*Salud y República*’ diosalaz burutzen zituen], zegokion alkatetzeta hartzea, gazteagoa zelako. Baina hark esan zuen apaiz eta moja denak herritik bidaliko zituela. Horregatik joan zitzaizkion amari kargua berak harrezala eskatzera, eta berak onartu. Han jeisten zen, astean behin, oinez, Zestoako Udaletxera, despatxatzera.

Bestea gogoratzen zaidana da *Estampa* aldizkariarena. *Estampa* zen gaurko *Holaren*

tankerakoa, sepia koloretan dena. Han atera zen ama kapela buruan, aginte makila eskuan, eta atzean Alcalá Zamoraren [II. Errepublikan Espainiako presidentea] koadro erraldoia zuela. Aitari galdetu zioten ea zer iruditzen ziotzaion emaztea alkate izatea, eta berak esan zuen zoragarri iruditzen zitzaiola. Liberalak ziren”.

Bandoa euskara zuzen, jator eta egokian

Zestoako euskara teknikariak ere, Nora Palmitanok, oraintsu jakin du alkate andrearen kontua eta mantsogatik arakatu du udal artxibategia. Han zer topatuko eta “Gil Iglesias-tar

Historia kolateralak; Azkoitiko Zeppelin eta Ezkioko Alemana

Alkate andreen arrastoan uxarrean aritzean hamaika biografia harrigarri topatu ditugu, kasik nobeleskoak. Horietako bi ekarri ditugu hona.

"ZEPELIN, gaitzizen hori ipini zioten, inork egiten ez zituenak egiten zituelako; harrigarrikeriak" hasi da kontu kontari Pedro Aldalur, Carmen Querejetaren anaia zaharraz. "Behin guardasol bat preparatu zuen berak espezial eta San Martindik salto egin baietz harekin eta baita salto ere! Beste batean egin omen zuen trabesa udaletxeko balkoitik botila bota plazara eta ezetz puskatu; eta irabazi. Oso zen abila eta azkarrara hura eskuko jolasetan eta. Behin akordatzen naiz egon nintzela bere anaia fenomeno horrekin. Aita zena eta biok joan ginen bere fabrikara et han zeuzkan botilak jarrita lurrean bueltan-bueltan zirkulua eginez muturra barrurantz zutela. Etorri eta patrikatik sugeak atera zituela, sugeak! Suge horiek zirkulu erdira bota eta zigor mehe batekin zirikatzen zituen, tti-tti-tti, eta ihesi nahian haiek zuloa ikusten zutenean botila barrura sartu eta orduan kortxoa jartzen zion botilari. Gero etxera eramane eta formol-edo botatzen zien eta batzuk oso motel geratzen ziren, hilda; beste batzuk, herioan, ahoa zabaldu eta okertuta forma arra-

roak hartzen zituzten eta haietxek aukeratzen zituen gordetzeko. Han egoten zen begira-begira. Dena horrelakoa zuen hark.

EZKIOKO ALEMANA. "Oso alemana da; aleman-alemana" abisatu digute bera bisitatu aurretik. Alejandro Brauer-ek –Puri Gilen semea– ere euskaldun baino gehiago ikusten du bere burua alemaniar, "ez nituen alferrik 8 urte egin han 1940tik 48ra". "10 urte izaterako sartu ninduten Gaztedi Hitlertarretan". Eldarnio naziak gerrara deitu zuen etsaiak Berlinen sartzear zirela: "45eko maiatzaren 3an deitu gintuzten herrian geratzen ginen gazte apurak [lau egun lehenago hil zuen bere burua *Führer*-ak; maiatzaren 8an sinatu zuten armistizioa]; bagenekien ez zegoela atzera bueltarik eta ez ginen joan. 15 urte nituen". Gero etorri ziren militar sobietarrak; mugalari baten laguntzaz 48ko otsaileko gau batez alanbre hesiak pasatzea "elurretan belauneraino sartuz; harrapatuz gero bagenekien zer genuen, Siberiara!", Munich-go errefuxiatu kanpalekua... eta etxeratzea Genova eta Bartzelonatik bueltan.

Hernanira iritsi zenean arrea gazteak ireki zion atea eta oihu egin zuen sukaldera: "Amona!, eskale bat dago atean".

Garbiñek izenpetutako akta, euskaraz!, artxi-boan euskaraz dagoen bakarrenetakoa". Ez da gainera nolana hiko dokumentua Palmitanoren iritzira: "Bando bat da sagarrondoak aldatzea-gatik diru-laguntza deialdi baten berri ematen duena. Ortografia alde batera utzita, esango nuke gaur egun testu administratibo bati eskatzen dizkiogun ezaugarri guztiak badituela: edukiz –ulergarria lehenengo lerrotik, zehatza, argia, lastorik gabea...– eta formaz. Hots, testu natural-naturala. Eta hala ere, ziur nago, batere pentsatu gabe idatzitakoa dela".

'Anekdotak historikoa' ren azalpena

Udal hauteskundeak berez 1931ko apirilean izan ziren; herri txikietan ordea –Gipuzkoan

89tik 42tan– hautagaitza bakarra zegoelako edo hautatu beharreko kargu adina hautagai aurkeztu ez zelako, ez zen bozketarik egin eta hauteskunde legearen 29. artikulua aplikatuz hautagaiak sartu ziren udaletan. Errepublikaren etorrerak legea aldatu eta hauteskunderik izan ez zen herrietan agintean zeuden zinegotzi eta alkateak kargutik kendu zituen 1933ko urtarrilean; apirilerako hauteskundeak deituz –hauteskunde kanpaina horretan parte hartu zuen, lehenengoz, zenbait emakumek eta boto eskubidea ere hor estreinatu zuten–. Lau hilabeteko botere hutsunea betetzeko udal gestorak sortu ziren herriz herri, zozketaz ateratako bi herritarrek eta funtzionario batek osatuta. Herri

MATTEO JATETXEA



Ugaldetxo auzoa, 11
20180 Oiartzun
Tel. / Faxa: 943 49 11 94
e-posta: restaurantematteo@telefonica.net
web orria: www.restaurantematteo.com



Aurreneko alkate andreak

askotan maistra zen funtzionario bakarra, baita gestorako hiru kideetan alfabetatu bakarra, funtzionario ez zirenen sinadura dardartiek salatzen dutenez. Horrek bihurtu egin zituen alkate.

Dozenerdi urte eman zituen Jose Antonio Rodríguez Ranzek tesia egiten: *Guipúzcoa y San Sebastián En Las Elecciones De La II República*. Bere aburuz, “alderdien eta ideologiaren bilakera ulertzeko gestora horiek anekdota hutsa dira, baina kontuan hartzekoa da emakumeen parte hartzeagatik”. Maistrek ez zuten borrorik egin alkatetzara iristeko; legez onartu behar izan zuten izendapena. Ez da hor heroitasunik... Edo bai?

25 urteko neska, Azkoitiko ‘endore’

Carmen Querejetak gobernadorearen ordezkariaren mehatxuei eta udal gestorako kideen ustelkeriari aurre egin zien 25 udaberri bete aurretik.

Juan Bautista Mendizabal Azkoitiko kronista ofizialak eman dizkigu aurreneko pistak: “Hauek (Querejetatarrek) denak karlistak ziren eta artista samarrak ere bai; anaia inbentore modukoa zuen, *Zeppelin* esaten zioten. Horien berri nahi adina kontu Aittitte Pedrok emango dizkizu”.

Ez dio gezurrik Mendizabalek, Pedro Aldalur (1920) iturri agortezina da eta. Querejetatarrek etxepekoak izan zituen eta eurena izandako etxean bizi da gaur: “Aita ere irakaslea zuen. Oso zen gizon ilustratua; ba al dakizu zer zen maisua denbora hartan, herrian jendea brusarekin ibiltzen zen sasoian? Ez ziren edozein, ama-alabak Cauterets-era joaten ziren udan, bainuetxera.

Carmen neska *maja* zen oso. Beltzarana, ederra, apaina; izakeraz, berriz, izan litekeen emakumerik onena. Ene, oso zen umila eta bihotz onekoa. Maistra egin berria izango zen alkate jarri zenean. Herrian lehenengotik harridura egon zen: ‘Hau nola jarri ote duk alkate!’... Gainera, pentsakeraz familia tradizionalistakoa zen eta udalean berekin sartu zena, berriz, nazionalista; baina hura ere gizon ona, ez zen xextrosoak. Orduan zitalkeria bazen baztarretan, gainera kazikismo handia zegoen herrian eta botoak erosi egiten ziren eta...”.

Emakumeari mehatxu, bere hobebharrez

Querejeta udalean egon zeneko aktak leituta azkar antz eman diogu Pedrok esandako *zitalkexxe* eta *kazikismue* ez zirela Azkoitian kabitzen. Udal gestoraren horren lehendabiziko batzarreko aktan, azken paragrafoan, salaketa larria jasota dago. Idazkariaren kaligrafia barrokoak gazteleraz jasotzen du nola kargu hartzeko egunean bertan, Querejeta andereñoari presentatu zitzaion “*el delegado*

del Excmo. Sr. Gobernador Civil”, eta nola gizon horrek zegokion karguari uko egin ezan ahaleginak egin zituen, bere hobebharrez, zeregin horrek ekarriko zion disgusto andana ekiditeko. Querejetak, legezko betebeharra zuelako, uko egingo ez zuela erantzun zionean gobernadorearen ordezkariak mehatxu egin zion ahal zueneraino jazarriko zuela zin eginez. Horregatik adierazi zuen Querejetak “*su más enérgica y solemne protesta*”.

Gaitzespen horrekin ez zitzaizkion ordea buruhausteak bukatu. Gestorako beste bi kideekin errieta mordoska ibili zuen; bilera gehienetan erabakiak beste biek hartzen dituzte Querejetaren kontrako iritziarekin. Bi gizonen soldata kobratzea ere onartu zuten, legez galarazia egonagatik, eta horrek sutan jarri zuen gobernadorea. Atzera egiteko aginduz hiruzpalau telegrama jaso zituzten. Halako batean, apirilaren 5eko batzarrean Carmen Querejetak sinatzen du alkate moduan eta bi kide berri agertzen dira. Pentsatzekoa da gobernadoreak agindutako ‘neurriak’ hartu zituela. Gazteak hilabete pasatxo baino ez zuten egin postuan, hilabete patxadatsua nolana ere. Alkatetza utzi ostean Larraulgo eskolan aritu zen.



Ikaztegiatan (Gipuzkoa) ere xuxen eta arduratsu bete bide zuten egiteko comisión gestorakoek, Escolastica Lopez Davadiñoren agindupean. Izan ere maiatzean hauteskundeetatik ateratako udal agintari berriek eskerrak eman zizkieten eta “oso pozik” agertu ziren beraien gestioarekin, kudeaketa “arduraz eta jakituriaz” egin zutelako eta “udal ondarea aberastua” utzi zutelako.

Aurea, Iciar, Josefina eta Maxima

“Zahartzarora heldu zenean jakin ditut nik amaren kontu asko” hasi da Ana Mari, alaba, Aurea Arreguiren ibilerak esplikatzeko. “Badakizu, jendeak zahartzen delarik, oroitu egiten du; gaztetako oroitzapenak berritzen ematen du denbora. Alkate izan zela zerbait banekien baina gauza gutxi. Haurtzarora Leitzan (Nafarroa) pasa zuen. Aita maisua zuen eta hiru alabak maistra egin zituen. Hemeretzi urte zituela Galiziako herririka batera destinatu zuten eta aitak lagundu zion hara; errepiderik ez eta iritsi ziren. Handik bueltan Gipuzkoara. Albizurrera lehendabizi, han ikasi zuen euskara, bertakoek apenas zekitelako erdararik. Gero, urte gehienak Arrasaten eta Hernanin eman zituen.

Jose Maria Urcelayk esanda jakin dugu 27 urterekin iritsi zela, 1931n, Iciar Arana donostiarra Legazpira (Gipuzkoa). 1933ko urtarrilaren 24tik maiatzaren 10era arte egon zen alkate. Bere agintaldian bukatu zituzten Brinkola auzoko eskolak; musika banda ere tarte horretan sortu zen. Anoetako alkatea izan zen Maria Josefina Sola, eta Berrobikoa Máxima Purificación.

Beste lurraldeetan azterketa egiteko dago. Gipuzkoa miatu dugu guk eta zortzi alkate andre topatu. Igadera arte, behintzat, gizonen agindu dute zortzi herriotan. Horregatik du garrantzia lau hilabete eskas iraun zuen iraultza txikiak. Maistraren esana herriko etxetan lege bihurtu zenekoa. ■